

ZUMARRAGAKO OSPITALEA: 25 URTE HERRITARREN ZERBITZURA

·Zuek bai jakin!: Anjel Lopez ·Elkarrizketa: Xotero Plazaola ·Izerdi patsetan:
Urretxuarrak NBA txapelketako finalean ·Boteprontoan: Estitxu Zaldua

Herri Aldizkaria Otamotz

2008ko
ekaina
138. alea





Construcciones

MENDIOLA

Labeaga, 9- Tf. 943 72 05 11 - Fax: 943 72 44 10
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
E-mail: mendiola@cmendiola.com
www.cmendiola.com

Etxebizitzen
eraikuntza

Industria
pabilioiak

Urbanizazio
lanak

Legazpiko Olazabal Institutuaren
ondoan **6 chalet adosaturen**
eraikuntza berria

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo. Labeaga 12, Urretxu. 943 03 64 74 **Koordinatzailea:** Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jonmikel Intsausti, Sebas Iturriotz, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta eta Asier Zaldua **Diseinua:** Ane Miren Ormazabal **Euskara zuzentzailea:** Marian Toledo **Azaleko argazkia:** Gotzon Aranburu **Banaketa:** Aintzane Arizmendiarieta **Publizitatea:** Iker Telletxea - 647 319 757 **Inprimategia:** GOI DESIGN **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 1.500 ale **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik

aurkibidea

- 04 Hilabete honetako gaia**
Zumarragako ospitalea: 25 urte herritarren zerbitzura
- 12 Komikia / Egurra partitzen**
- 13 Zenbat buru, hainbat aburu**
Zer iritzi duzu ospitaleari?
- 14 Bota bertsoa! / Iritziz iritzi**
- 15 Argazki zaharra**
- 16 Klik eta klik**
Josu Perez
- 19 Gure gomendioa**
- 20 Zuek bai jakin!**
Anjel Lopez
- 24 Elkarrizketa**
Xotero Plazaola (Urola Garaia: zer da eta nora doa?)
- 26 Izerdi patsetan**
Hiru urretxuar NBA txapelketako finalean
- 28 Gure aholkuak**
- 29 Literatura**
- 30 Boteprontoan**
Estitxu Zaldua



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko Udalak eta Zumarragako Udalak emandako diru laguntza jaso du.

25 urte herritarren zerbitzura

Zumarragako ospitaleak 25 urte beteko ditu datorren urtean. Osasun kontu gehienak herrian bertan konpontzera ohitu gara, baina horretarako udalek gogor borrokatu behar izan zuten 80 hamarkada hasieran. Ordutik, ospitalea asko hazi da eta egun Urretxu eta Zumarragako enpresa handiena da. Alberto Colina kudeatzailearekin, hasieratik bertan lanean diharduen Miren Etxeberria erizainarekin eta 1979tik 1983ra Zumarragako alkatea izan zen Jose Luis Ruizekin hitz egin dugu gai honi buruz.

Ospitaleko langile beteteranoetako batzuk, sarreran. Argazkia: Gotzon Aranburu.



Alberto Colina: “Hemendik mila paziente pasatzen dira egunero euren laguntzaileekin eta zonalde hau gutxi esplotatua dago”

2005a geroztik Alberto Colina da Zumarragako ospitaleko kudeatzailea. Bilbotarra da, baina urte mordoxka daromatza dagoeneko gure artean. 1986an etorri zen, zirujau lana egitera hain zuzen ere. Hala, primeran ezagutzen ditu bertako ospitalearen nondik norakoak.

Noiz etorri zinen Zumarragara?


1986an heldu nintzen, zirujau lana egitera. 90eko hamarkada hasieran kirurgia zerbitzuaren arduradun izendatu ninduten eta 1996an ospitaleko mediku zuzendaritza hartu nuen. 2002an Basurtuko mediku zuzendaritza hartu nuen eta 2006ko maiatzean kudeatzaile gisa itzuli nintzen. Hala, ondo ezagutzen dut ospitale honen historia. Basurtun nengoenean ere gertutik jarraitzen nituen hemengo nondik norakoak.

Nolatan etorri zinen?

Oposizio publikoan plaza lortu nuen eta hona etorri nintzen. Ospitalea ireki berria zen eta ez zegoen oso ondo ikusia herritarren artean. Izan ere, zerbitzu gutxi eskaintzen zituen eta langileak gazteak ziren. Pixkanaka aurrera egin genuen eta gizarteak eta ospitaleak elkar ulertu genuen.

Hiritarra izanik, zer iruditu zitzaizun herri batera etorri behar izatea?

Lehenbailehen itzultzeko asmoarekin etorri nintzen, baina bertako lan-giroa asko gustatu zitzaidan. Jendea oso atsegina zen, lanerako gogoia eta ilusioa zituen... Gazteak ginen eta ospitalea gure egin genuen. Horri esker, ospitaleak



Alberto Colina, bere bulegoan.

garai txarretan biziraun zuen eta gero indartu egin zen. 90eko hamarkada hasieran anestesistarik ez genuela eta kanpotik ekarri behar izan genituela kontuan izan behar da. Larrialdizko ebakuntzak bakarrik egiten ziren. 1992 inguruan egoerak hobera egin zuen eta ordutik aurrera indarra hartu genuen.

Azken urteotan sari ugari jaso dituzue.

1995ean kalitatea lantzen hasi ginen. 1997an *FQM* ereduja jarraitu genuen, 2000. urtean *Zilarrezko Q-a* lortu genuen, 2003an urrezkoa, 2005ean Europa mailako saria, 2007an Iberoamerikarra eta Osasun ministerioarena... Horretaz gain, estatuko pediatria zerbitzu onena izendatu gaituzte, Unicef erakundeak *Haurren Lagun* bereizgarria eman digu eta estatuko zirujau laparoskopista onenak ditugu.

Batzuk kanpotik etortzen dira gurera operatzera. Txikiak gara, baina hemendik kanpo ere ondo ikusiak gaude.

Hori guztia langileen inplikazioari esker lortu da, noski.

Hala da. Hemen gelditu dena nahi duela izan da. Batzuek kanpora joateko aukera izan dute edo beste ospitale batean buruzagi postua dute, baina hemen jarraitzen dute. Giro ona eta ilusioa nagusi dira. Gainera, autonomia handi samarrarekin lan egin daiteke. Eragozpen bakarra bidaia da: langile asko hemendik kanpo bizi dira. Medikuek gehienak kanpoak dira: hego Euskal Herriko lau hiriburuak batez ere. Izan ere, Zumarraga guztien erdian dago, gutxi gorabehera. Denbora eta dirua galtzen dute, errepidea arriskutsua da..., baina

lanerako giro atsegina eskaintzen diegu. Langileak ondo zaindu behar dira. Ospitale txiki batean harremanetarako aukera handiagoa dago. Bertakoen artean erizainak eta medikuntzatik kanpoko langileak dira nagusi.

Etorkizuna ziurtatua al duzue?

Osasun munduan arazoa izango dugu: mediku eta erizain gabezia. Dagoeneko uda garaian larri gabilta. Guk hiriburuetako ospitale handiek baino arazo gehiago ditugu eta langileak gustura egotea lortu behar dugu. Gaixoen iritzia jasotzea ere garrantzitsua da.

Zenbat langile zarete?

500 inguru gara. Horietatik 100 medikuak dira eta 200 pasatxo erizainak. Gainontzekoak administrariak, mantenu-langileak... dira.

Ospitale osoa al da?

Osoa da, baina eskualde mailakoa: txikia. Espezialitate garrantzitsu guztiak ditugu eta kontsultak ere bai. 130 ohe ditugu eta 90.000 pertsonentzat lan egiten dugu.

Ospitale txikiei langileak erakartzea gehiago kostatzen zaizuela esan duzu. Dirua lortzea ere gehiago kostatzen al zaizue?

Handien beharrak handiagoak dira, baina eurek egin dezaketen presio soziala ere bai. Osasun sailarekin harreman ona dugu eta hori garrantzitsua da. Familia buruarekin harreman ona izatea komeni da.

Zeintzuk dira etorkizuneko erronkak?

Azken bi urteotan larrialdien zerbitzu berria inauguratu dugu eta kontsultetarako gune berria egin dugu, hilabete honetan endoskopia unitate berria irekiko dugu, artxiboa berritu dugu, maiatzean etxex etxeko ospitaleratze zerbitzua abian

jarri dugu, oftalmologia unitate berriko obrak hasi behar ditugu, udan zortzi ohe gehiago jarri behar ditugu, aurten bertan kontsulta eta erradiologia sailak handitu behar ditugu, erditzeko gela eta ebakuntza-gela berriak egin behar ditugu... Horrekin guztiarekin datozen 10-15 urteetako beharrak ase ditzakegula uste dugu. Ohe gehiago bakarrik faltako lirakeke. Bestalde, gure ondoan gerontologia zentroa ireki behar da eta elkarrekin lan egitea espero dugu.

Azpiegiturez gain, zerbitzuaren kalitatea ere zaintzen duzue.

Hala jarraituko dugu. Ezin ditugu ohiko ikerketa lanak egin, baina gaixoarekin ditugun harremanei dagokienez berrikuntzak egin ditzakegu. Nola zaindu, informatu eta inplikatu landu dezakegu.

Zein da ospitale honen indar gune nagusia?

Europa osoan gurea da *FQM* saria duen ospitale bakarra. Bestalde, iberoamerikar saria duen estatuko bakarra da. Osasunaren kudeaketari dagokionez, oso ondo ikusiak gaude. Pediatria eta traumatologia zerbitzuak oso onak dira, baina kirurgiak duen onspena demasa da. Arduradunak nazioarteko foro askotan parte hartzen du.

Eskualdeko bizilagunek hau guztia estimatzen dutela uste al duzu?

Inkestetan gustura daudela diote eta, esan bezala, kanpoko batzuk hona etortzen dira operatzera. Profesionalen artean ere ondo ikusiak gaude. Bestalde, inguruko gaixo elkarrekin eta udalekin lan egiten dugu, euren foroetan parte hartzen dugu, UTBrentzat saioen bat egin dugu, haurren elikadurari buruzko liburu bat argitaratu nahi dugu...

Gaia aldatuz, nahiz eta ez zaren bertan bizi, ia bertakoa zaitugu.

Herria asko aldatu da lehenengoz etorri nintzenetik. Zumarraga herri zikina zen: Orbegozok tximinia handi bat zuen eta ke beltza botatzen zuen. Gainera, udazkeneko egun goibel batean heldu nintzen eta herri hotza eta kutsatua zirudien. Bestalde, krisialdi ekonomikoaren garaia zen eta zonalde hau zigortuenetako bat izan zen. Gaixoez gain, beste batzuk ere bazituzten. IHESak jokoaren indizea ere oso altua izan zen. Oso garai gogorra izan zen. Egun honakoa Euskadiko inguru indartsuenetakoa da eta gu horretan laguntzen saiatu gara. Urretxu eta Zumarragako enpresa handiena garela kontuan izan behar da. Hemendik mila paziente pasatzen dira egunero euren laguntzaileekin eta zonalde hau gutxi esplotatua dagoela iruditzen zait. Urtean milioi erdi pertsona hartzen ditugu, gutxi gorabehera.

Denbora luzean geratzeko asmoa al duzu?

Zumarragako ospitalea barnean daramat, 20 urte eman baititut bertan, baina Osakidetza langilea naiz. Sailburuak Basurtura bidali ninduen eta gustura joan nintzen. Hona itzuli nintzenean ere, gustura egin nuen. Ez dakit etorkizunean zer gertatuko den.

Bukatzeko, 25 urte beteko dituzue 2009an. Nola ospatu behar duzue?

Ospakizun batzordea eratu dugu jada, baina ez dugu urte osoa ospakizunetan emango. Bi ekitaldi nagusi izango dira: bata uda aurretik eta bestea ondoren. Ospitalearen alde borrokatu diren langileak gogoan izango ditugu eta herritarrek ere parte hartzeko aukera izango dute.

Miren Etxeberria: “Ospitale barrutik autoen hotsa entzuten zen eta norbait zetorrela konturatu bezain pronto korrika irteten ginen”

Ospitaleak aurrera egin badu, langileen konpromisoari esker da. Batzuek hasieratik daramate bertan. Horietako bat Miren Etxeberria zumarragarra da. Erizaintza ikasketak bukatu bezain pronto hasi zen Zumarragan lanean eta 24 urte daramatza jada bertan. Egun larrialdietako ikuskatzailea da. Ospitalea, erizaintza eta gai-
xoak asko aldatu direla dio.

Ospitalean hasi zinenean zein adin zenuen esan al daiteke?

Oso gaztea nintzen. Bi motots neramatzan oraindik... Unibertsitate ikasketak bukatu eta berehala hasi nintzen. Nafarroako Unibertsitatean Erizaintza ikasi nuen eta ondoren Fisioterapia ikasketak egin nituen toki berean. Dena den, erizaintzan lan egin dut beti.

Beste inon lan egin al duzu?


Ez. Fisioterapia bukatzea eta ospitalea irekitzea ia bat izan ziren. Behin-behineko lanpostu asko zeuden eta ikasketak bukatu aurretik hasi nintzen hemen.

Argi izan al zenuen jaioterrian lan egin nahi zenuela?

Zalantzak izan nituen. Izan ere, Iruñean bost urte eman nituen, lagun asko nituen eta oso gustura nengoen. Gainera, han ere lan asko zegoen. Zumarragan epe luzeagorako kontratua eskaini zidaten eta horregatik etorri nintzen.

Gaixoak ezagunak izango zirela jakiteak ez al zizun beldurrik ematen?

Ez nuen horretan pentsatu. Beste nonbaiten epe luzeagorako kontratua eskaini izan balidate, hara joango nintzen.



Miren Etxeberria, ospitalean.

Zer aurkitu zenuen etorri zinenean?

Iruñean praktikak egin nituen, baina hango eta hemengo giroa oso ezberdinak ziren. Han gure lanbidearen alderik politena bakarrik ezagutzeko aukera izan nuen eta hemen errealitatea ezagutu nuen. Inuzente samarra nintzen beharbada eta beldurrik gabe etorri nintzen. Ilusioa eta lanerako gogoia nuen, are gehiago bertakoa izanda. Oso langile gutxi geunden oraindik eta gainontzekoek ere ilusio handia zuten. Herritarrek oso ondo hartu

zuten ospitalea: horrek harro sentiarazten gintuen eta indarra eman zigun.

Hutsetik hastea ez al zen gogorra izan?

Ez dut halako oroitzapenik. Ospitalea 1984an ireki zen eta Osakidetza 1983an sortu zen. Oso une garrantzitsua bizi izan genuen, Osakidetzaaren eta gure ospitalearen oinarriak jarri baikenituen, baina ez ginen jabetzen. Dena den, ospitale honi berezko estiloa eman geniola uste dut.

Zenbat lagun zeundeten hasieran?

Oso gutxi. Dena den, ni ez nago lehenengo heldu zirenen artean. Beste batzuk ni baino lehenago hasi ziren lanean. Bost lagun ospitalea guztiz hutsik zegoela hasi ziren. Antolaketa lanari ekin zioten eta zerbitzuak martxan jarri ziren heinean lagun gehiago hasi ginen. Hasieran aldaketa asko ematen ziren: batzuk etorri, besteak joan... Ospitalea sendotzea asko kostatu zen, hasieran langileak ahal bezain pronto alde egiteko asmoarekin etortzen baitziren. Pixkanaka, benetan hemen lan egin nahi dugunok gelditu gara.

Zeintzuk zineten 1984an hemen lan egiten zenuen herritarrek?

Adeli Busca, Ines Ruiz, Pili Biain, Marian Sarriegi, Gurutze Bolinaga...

Askok kostatu al zen zerbitzu guztiak martxan jartzea?

Ez horrenbeste. Hasieran larrialdietako zerbitzua, X izpiena eta laborategia zeuden. Ondoren ospitaleratze unitateak ireki ziren: barne-medikuntza, kirurgia, ebakuntza-gelak, erditze-gelak... Ospitale txikia zenez, ez zen denbora asko behar

izan zerbitzu guztiak abian jartzeko. Gehien kostatu zena sendotzea izan zen.

Asko aldatu al da zuen lana urte hauetan guztietan?

Asko. Larrialdietan lan egin dut, batik bat, eta zerbitzu hau izugarri aldatu da. 25 urtetan ni neu, gizartea, eskaria... dena aldatu da. Hasi ginenean jende gutxi etortzen zen larrialdietara. Jendeak zerbitzu horri errespetua zion. Egun edozer gauzagarrik etor daitekeela dirudi. Gau batzuetan larrialdi kasu bakar bat ere ez genuen izaten. Hasi berriak ginenez, lanerako gogo handia genuen. Garai hartan ospitale barrutik autoen hotsa entzuten zen eta norbait zetorrela konturatu bezain pronto korrika irteten ginen gaixoa hartzera. Erregeen pare hartzen genuen! Egun, hori pentsaezina da.

Zergatik uste duzu lehen larrialdietako zerbitzua gutxiago erabiltzen zela?

Jendea halako zerbitzurik ez izatera ohi-tua zegoen eta bere kasa konpontzen zen. Bestalde, anbulatorioetako zerbitzuak paper garrantzitsua zuen eta jendeak hara joateko ohitura zuen. Oso gaizki zeudenean etortzen ziren ospitalera. Gainera, ospitaleko langileak oso gazteak ginen eta jendeari beldur pixka bat eman-go zion beharbada gure eskuetan jartzeak. Batek baino gehiagok galdetu zidan ea ebakuntza egin behar zion zirujaua fidatzekoa zen. Batek edo bestek niregatik ere galdetuko zuen... Pixkanaka jendeak konfiantza hartu zuen eta ospitalea saturatu egin zen. Egitura zaharkituta gelditu zen eta eskarira moldatu behar izan genuen. Oraindik horretan gaude. Izan ere, 25 urtetan gizartea asko aldatu da.

Zertan aldatu da?

Gu hasi ginenean bi paziente mota baka-

rrik zeuden: baserritarra eta kaletarra. Gero ijitoak, hegoamerikarrak... etorri dira. Batzuek asko eskatzen dute eta zaila da eurekin lan egitea.

Bertako jendea asko aldatu al da?

Baietz uste dut. Gizartea aldatu egin da eta horrek gugan eragina du. Pediatrian oso nabarmena da. Ez dut gogoratzen umetan medikuarengana askotan eramaten nindutenik. Garai hartan gurasoek seme-alaben ardura zuten. Egun gurasoek ardura txikiagoa hartzen dutela iruditzen zait: haurrak sukar apur bat izan bezain pronto ospitalera igotzen dute erabakiak pediatrik har ditzan. Haur batzuek, osasuntsuak diren arren, sekulako karpetak dituzte hemen. Nire ustez bizimoduaren eragina da. Gurasoek lan egiten dute, haurrak zaintzailearekin edo aitona-amonekin uzten dituzte, lanetik nekatuta hel-tzen dira, haurrak sukarra duela ikusten dute eta, hurrengo egunean ezin dutenez pediatriarengana eraman, berehala larrialdietara igotzen dute. Adinekoekin berbera gertatzen da. Lehen etxean bizi ziren eta beti zegoen familiako norbait beraiekin. Orain bakarrik uzten zaie eta zer edo zer duten bakoitzean ospitalera ekartzen dituzte. Hau guztia dela eta, larrialdietako zerbitzua gainezka dago.

Baliabideak ere asko aldatuko ziren...

Noski. Etengabe aldaketak ematen dira. Larrialdietako zerbitzua birritan berritu da. Lan egiteko modua ere asko aldatu da: eraikina, antolakuntza, informatika programak... berriak dira. Gu bakarrik gara zaharrak hemen!

Atzera begiratzen duzunean, garai bateko lan egiteko modua sinesgaitza irudituko zaizu.

Hala da. Garai hartako oroitzenak oso

onak direla ikusteak txunditu egiten nau. Egun larrialdietako zerbitzua erabat informatizatuta dago. 24 urte hauetan bide hau osatu izana sinestezina da.

Ba al da bereziki gogoratzen duzun anekdotaren bat?

Larrialdiak esker onekoak dira, ez dira ohikoak. Gainera, adin guztietako jendearekin, istripuekin... lan egitea tokatzen zaigu. Hori bai, kasu guztietan mina eta sufrimendua aurkitzen dugu. Ez da barre egiteko tokirik aproposena, baina hasieran barre asko egiten genuen eta oso ondo pasatzen genuen. Izan ere, gazteak ginen eta lan gutxi genuen. Egun hitz egiteko astirik ere ez dugu ia. Esan bezala, lehen jendeari askoz ere gehiago kostatzen zitzaion larrialdietara etortzea eta kasu guztiak deigarriak iruditzen zitzaizkigun. Baserritarrak bereziki gogoratzen ditut. Behin gizonezko bat oinez sartu zen gurera eta motozerrarekin ebaki zela esan zigun. Handia eta osasuntsua zen eta gomazko botak zeramatzen. Eskutrapuarekin torniketean egin zuela esan zigun. Ez zegoen zurbil! Egun mareatuta eta oihuka sartuko ziren... Baserritar hari bota kendu eta dena odolez beteta zuela ikusi genuen. Ez zuen lasaitasuna galdu! Egun halakoak ezinezkoak dira: denak anbulantzia eta Ertzaintzak eskolatuta etortzen dira...

Bukatzeko, zer da Zumarragako ospitalea hasieratik bertan lanean ari den zumarragar batentzat?

Oso berezia da, baina ospitale handi batera joatea ere tentagarria da. Ez legoke gaizki halako bat ezagutzea, baina txiki batean lan egitera ohituta nago... Hemen lagun arteko giroa dugu, iritzia emateko eta erabakiak hartzeko aukera dugu...

Jose Luis Ruiz: “Alkate izan nintzen urteetan ospitalea Zumarragan eraikiko zela jakitea baino gauza pozgarriagorik ez zen izan”

Jose Luis Ruiz Zumarragako alkatea izan zen 1979 eta 1983 bitartean. Legealdi hartan lortu zen, hain zuzen ere, ospitalea Zumarragara ekartzea. Goierri Garaiko gainontzeko herriek eta udalbatzako zinegotzi guztiek helburu horren alde bat egin zutela gogoratzen du eta Juan Mari Garitano alkate ohiaren lan ona goraipatu du. Legealdi hartako beste gauza batzuk ere kontatu ditu.

Ospitalea hemen egingo zela jakin zenuen unea izan al zen legealdi hartako pozgarriena?

Gauza pozgarriagorik ez zen izan. Izan ere, lan handia egin genuen hori lortzeko. Dena den, gu hasi ginenerako beste batzuek pauso batzuk eman zituztela esan behar da. Juanito Garitanok eta Juanito Arbizuk eman zituzten lehen pausoak, beste batzuekin batera. Garitanok sekulako laguntza eskaini zidan. 1979ko hauteskundeen aurreko batzorde kudeatzaileko presidentea izan zen, Madrilen jende asko ezagutzen zuen eta berarekin joaten nintzen. Bilera berezietara, berriz, alderdi guztietako ordezkariak joaten ginen.

Nola hasi zen ospitalearen kontua?

Inguru honetan egin behar zen eta, esan bezala, gu udaletxean sartu aurretik beste batzuek lehen pausoak eman zituzten. Zumarragak lursail hori aukeratu zuen, aspaldi desjabetu zutelako etxebizitzak egiteko. Ospitalea Espainiako estatuak egin behar zuen eta terrenoa berea zenez, tokirik onena hori zela pentsatu



Jose Luis Ruiz, bere etxeke balkoian.

genuen. Zein herritan egin, berriz, hemen bertan erabaki behar zen. Eusko Jaurilaritza oraindik ez zegoen martxan: *Consejo General Vasco* delakoa zegoen. Behar ziren ate guztiak jo genituen: gure partidukoena eta besteena. Zenbat bidaia egin ote genituen! Izan ere, Beasain ere ospitalearen atzetik zebilen. Beasaingo Campillo gizon gogorra zen!

Azkenean Zumarragan egin zen.

Sekulako poza hartu genuen. Guk lehenbailehen egitea nahi genuen eta Madrilen ondo portatu ziren. Obra Bilboko enpresa batek egin zuen.

Prozesu gogorra izan al zen?

Bai, baina 17 zinegotziok bat hartu genuen eta Urretxu eta Legazpi ere gurekin zeuden. Guztiok oso argi genuen ospitalea Zumarragara ekarri behar zela. Hori eskertu beharra dut. Ordura arte jendeak goizeko seieta tren hartu behar izaten zuen Tolosara edo Donostiara joateko eta analisiak egiteko. Ia edozein gauza egiteko bertara joan behar zen. European bezala, ospitaleak asko jota 20 minutura egon behar zirela erabaki zen eta Zumarragako izan zen egin zen lehe-

na. Ondoren, Irunekoa, Mendarokoa... egin ziren.

Azaldu al zizueten zergatik erabaki zen Zumarragan egitea eta ez Beasainen?

Gure lanagatik izan zela uste dut. Gainean egon ginen, joan-etorri asko egin genituen... Beasaingoek hona etortzeko Eitzaga igo behar zela eta neguan arazoak egon zitezkeela esaten zuten. Bakoitzak norbere herrian egin nahi izatea normala da, lanpostu asko ere jokoan baitzeuden. Egun ospitalea Zumarragako enpresa handiena izango da.

25 urte eta gero, nola ikusten duzu ospitalea?

Osasun kontuetarako kanpora joan behar ez izatea gauza handia da. Bestalde, sari asko jaso ditu eta ondo doala uste dut. Lan handia egin genuen, baina merezi izan zuen.

Egitasmo honek aurrera egin zuen arren, ez zenuen alkate jarraitu.

Oso argi nuen. Udal ordezkarien arteko harremana ona zen, baina alderdien artean istilu asko zeuden. Horrek jarraitzeko gogoia kendu zidan. Alderdikoek jarraitzeko esan zidaten, baina argi erantzun nien.

Alkate izan aurretik politikarekin harremanik izan al zenuen?

Batere ez. EAJko afiliatua nintzen aspalditik, baina sekula ez nintzen politikan sartu.

Nolatan suertatu zitzaizun orduan alkate izatea?

Ez iezadazu hori galdetu... Pasiotarren egoitzan alkatetzarako hautagaia aukeratzeko bilera izan zen eta botoak kontatu ondoren nire izena esan zuten. Ihesean alde egin nuen handik. Inork ez zidan esan nire alde botatu behar zuenik.

Ez zinen asko poztu...

Batere ez. Hemengo arduradunak auke-

ratua izan nintzela eta aurrera egin behar nuela esatera etorri zitzaizkidan. Hala izan zen kontua, ez Zumarragako alkate izan nahi nuelako.

Zergatik uste duzu aukeratu zintuzte-la? Herrian ezaguna izango zinen...

Zumarragako zulo guztietatik pasatuta

“Beasaingoek hona etortzeko Eitzaga igo behar zela eta neguan arazoak egon zitezkeela esaten zuten”

nengoen ordurako: *Hermanotako* ikasle ohien elkartearen, ikastolan, Urolako presidentea izan nintzen... Horregatik hautatuko nindutela pentsatzen dut.

Nola osatu zen udalbatza?

EAJko zazpi, PSEko bost, HBko bi, PCEko bi eta EEko bat geunden. Gure arteko harremana ona izan zen, nahiz eta eztabaida batzuk izan genituen. Gehienetan udalbatzatik irten eta guztiok elkarrekin txikito batzuk hartzera joaten ginen.

Nolakoa izan zen legealdi hura?

Hasieran mozio asko aurkeztu ziren eta halako batean nahikoa zela esan eta herriko gaiak bakarrik eztabaidatzea erabaki genuen.

Zer egitasmo izan ziren?

Kiroldegia ere guk jarri genuen abian. Urbanizazio mailan lehen gastua Antonio Oraan eta Etxeberrin egingo genuela esan genuen eta hala izan zen. Ez zego-

en diru asko, baina apur bat txukundu genituen behintzat. Urdaneta kaleko eta Eitzagako igoerako espaloiak ere egin zen. Azken hau egiteko mojei zati bat kendu zitzaien. Hilerria berritu zen, udal-txearen berrikuntza abian jarri zen...

Nekez imajina daiteke herria espaloirik gabe...

Lehen urtean 44 milioi pezetako aurrekontua izan genuen. Udal-langileei ordaintzeko dirurik ere ez zegoen. Euren taloiak firmatzeak lotsa ematen zidan, soldata penagarriak baitzituzten. Ez zegoen ezertarako dirurik. Garai hartan heldu ziren Eusko Jaurlaritzaren lehen laguntzak. Herrian ez zegoen ezer eta gure erronka gauzak egitea zen. Dirulaguntzak lortzeko proiektuak aurkeztu behar genituen eta oraindik ez genuen ez arkitektoik eta ezta aparejadorerik ere. Legealdi hartan kontratatu ziren profesional hauek eta lehen Arau Ordezkatzaileak ere orduan onartu ziren.

Zerbaitetaz damutu al zara?

Baskongadoetako eta Urolako trenen lursailak erosi genituen eta bertan ambulatorioa eta Ertzaintzaren komisaria egin dira, baina nire ustez toki hori trenaren museoa egiteko aproposa zen. Museoa Azpeitian egin zen, baina Zumarraga baino trenbide-gune garrantzitsuagorik ez da izan Gipuzkoan. Bestalde, nire aita trenbideetako langilea izan zen eta hori da gai honekiko nire kezka beste arrazoia.

Udala asko aldatu al da?

Guk ez genuen ezer kobratzen! Bestalde, garai hartako aurrekontua 44 milioi pezetakoa zen eta egungoa 2.000 milioi ingurukoa. Egun dirua askoz ere errazago lortzen da, handik edo hemendik. Lehen zailagoa zen lana egitea.

UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA



HARATEGIA URDAITEGIA

☎ 943 72 00 61
Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

centro óptico
JAVIER Arratibel
optika

Ikusmenaren neurketa - Begietako
tentsioaren neurketa - Graduatutako
eta eguzkitarako betaurrekoak -
Lentilak - Termometroak eta
barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA
☎ 943 72 54 84

Egumendi, S. L.

Manganeso altzairuaren
aplikazio teknikoak

Ipeñarrieta, 48
☎ 943 72 33 01 - Fax: 943 72 43 41
Urretxu-Zumarraga
www.egumendi.com
egumendi@egumendi.com



Labeaga, 35 Urretxu ☎ 943 72 41 60



Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA



SUTAN

Tximiniak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 bajua - URRETXU
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz

Lorea


Pinturak - Etxeko apainketak
Lurrindenda - Jostailuak

☎ 943 72 41 90
☎ 615 75 33 28
Fax: 943 03 79 88

Legazpi, 5 - Zumarraga

PLAZAOLA ITURGINTZA

Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70



- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 943 72 36 52

Montajes e Instalaciones Eléctricas
HERCE
Energías, M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU



natural optics URRETXU

Lurdes Rodríguez Iparragirre, 1-Urretxu
Optiko-optometrista ☎ 943 72 59 68
urretxu@naturaloptics.com
www.naturaloptics.com

asirauto

BIGARREN ESKUKO AUTOEN
ESKAINZA ZABALA

Mugitegi industrialdea, Urretxu
943 72 59 22
659 67 89 79



ALTZARIAK

MERKA-UROLA

Mugitegi, 17 Tel. eta faxe 943 72 58 28
URRETXU

TABERNA



Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO
PREBENTZIO ZERBITZUA

KALITATEZKO ZERBITZU
ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA
ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)
943 72 41 00
administracion1@premark.com



Construcciones
MENDIOLA

Labeaga, 9. Tl. 943 72 05 11 - Fax: 943 72 44 10
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
Email: mendiola@cmendiola.com
www.cmendiola.com



Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 - URRETXU
☎ 943 72 25 13



Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

BIONA

AROSZTEGIA

Altzariak neurritara

☎ 943 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU



alejandra albisua


☎ 943 72 52 22
Soraluze, 6 - Zumarraga

Otamotz

Herri Aldizkaria
TOKI APROPOSA DUZU HAUXE
ZURE IRAGARKIA JARTZEKO

Iker Telletxea - 647 319 757 - beasain@iragarri.net


melankolikoek denek
tristeia naizela diote besteak zai
tristeia zarela diote
igande goibel baten tankerakoa galduta
horrela ikusten gaituzte antza
emango ez lukeen ezer irri bat bera ere
besteei zu ni ikusi ez arteko
urduri agertzen diren ateak nahi
nituzke erre oro zalantza
eta zu zara ni baino ez duzu esan
ez duzu erranen



<http://www.youtube.com/watch?v=KzWVWY5QUzg&feature=related>

egurra partitzen

Jon Torner
Jon Ormazabal



Petroleoa? Antzerkia bai dela garestia

Eskaintza eta eskariaren sistema modernoak, sekula hutsik egingo ez omen zuen horrek, porrot egin du. Bidaia agentziak, estetika zentroak, Eurocopan Villaren golak hobeto ikusteko plas-mazko telebistak saltzen dituzten dendak eta asteburuetako jatetxeak gainezka dauden arren, espainiako ministro pirata berari ere ahotik ihes egin dio krisi hitzak.

Hala ere, iruditzen zaigu ekonomia neoliberal baina –ez dakigu zehatz-mehatz zer esan nahi duen baina artikulua dotore janzten du– gizakia bera dela krisian dagoena. Izan ere, bere ogibi-dea defendatzeagatik kamioilari eta arrantzaleak greban jarri eta gizarte honetako partaideek izan dugun erantzunak auzo lotsa eragin digu. Kontsumismoaren yonkiak bagina, arazo larri baten aurrean egin dugun lehen gauza autoaren depositoa betetzeko ilara luzeak egin eta super-merkatuak «sakeatzea» izan da. Amaitu diren

lehen produktuak Coronadoren bifidus yogurtak eta komuneko papera izatea egoeraren metafora polit eta guztiz adierazgarri iruditu zaigu benetan. Petroleoa garestitzeak izan omen du guztiaren errua. Hala ere, Otamotzeko kolaborazio hauei esker gure eta gure ondorengoan etorkizun ekonomikoa bermatuta daukagunez, askoz garestia-goa iruditzen zaigu antzerkiaren prezioa.

Izan ere, Ferraz eta Sabin Etxeako erosotasunean idatzitako folletinaren gidoiaren kostea jasan ezina egiten ari da gure herriotan. Urretxun, etikaren izenean, elkarbitza krispatu eta zilegizko udal gobernua jomugan jarri ditu hilaren 5eko zirkuak eta Urola ibaiaren bestaldean, denbora gutxian orkestratutako beste muntai baten erruz, bigarren herritar gazte batek lau urte eta erdi eman ditzake giltzapean. Ea Broodwayen gertatzen den bezala, tragikomedia honek amaiera zoriontsua izaten duen.

Zer iritzi duzu ospitaleari buruz?

Gogoratzen al duzu ireki aurreko garaia?



ospitalea
hospital

Petri Arija




Askotan joaten naiz ospitalera, nire senarra gaixo baitabil azken bolada honetan. Beraz, nire etxea bezain ondo eza-gutzen dudala esan dezaket. Egia esan, gustura nago han eskaintzen duten zerbitzuarekin. Larrialdi kasuetan ere ondo hartu naute.

Esteban Romero



Zorionez edo zoritxarrez, oraintxe noa. Askotan joaten naiz eta orain arte oso ondo hartu izan naute. Hilabete egon nintzen ospitaleratuta eta orduan ere etxean bezala sentitu nintzen. Garai batean Tolosara joan behar izaten genuen... manifestazioak ere egin ziren hemen ospitalea egitearen alde!

Raimundo Izagirre



Tokatu izan zait eta, beno, oraingoz behintzat oso ondo hartu naute. Zerbitzua oso ona. Hala ere, txikia gelditzen ari dela iru-ditzen zait. Azkenaldian askotan joan behar izan dut. Abantaila handia da herrian bertan ospitalea izatea. Garai batean Tolosara joan behar izaten genuela ikustea besterik ez dago.

Elena Gartzia eta Ibon Badiola



Duela gutxi izan gara bertan, haurra izan baitugu. Bertan eskaintzen duten zerbitzua oso ona dela uste dugu. Nire ama ospitaleratuta egon zenean ere oso ondo zaindu zuten (Elena). Garai batean Tolosara eramaten gintuztela esan izan digute, baina ez ditugu bertara trenean egindako bidaiak gogoratzen.

Gaia: Eguraldi txatxua!

Doinua: Misiolari baten moduan

Maialen Akizu




San Joanekin batera dator
eguraldi onan bolada,
bikini eta galtza motzekin
armairua betea da.
Baina euria goitikan-behera
zer nolako zaparrada,
katiuska, aterki, txubaskeroa,
ezin liteke konpara,
jada ez dakit zein urtaro den
negua edo udara...

Eguraldia aspaldi hontan
dugunez nahiko umela,
pizsinak ez du egon beharrik
jendez beterik honela,
denok dakigu eta euriak
aspaldi bete duela...
Ez da inondik ageri aurten
eguzki printzen epela,
eguraldi onak ere oporrak
hartu ditu guk bezela!

Petrolioak garraio arten
sortua digu etena,
klima aldaketan hautsi ditugu
bi mila ta bat eskema.
Kontsumismoa handia degu
ta falta zaigu ordena,
natura ere ez degu zaintzen
a ze nolako eszena,
ez degu beste ezer merezi
gure errua da dena.

iritziz iritzi

Idoia Luzuriaga



Hizkuntza eta ereduak

Espainiako Gobernuak Berdintasun Ministrariak, Bibiana Aídok *miembras* esan duela eta aztoratuta dabilta estatuko intelektuak. Eta hau esanguratsua da maila batean. Akademiko gehien arabera, *miembra* esatea gaizki dago eta gainera *txorakeria* da. Esatari, telebista eta irratiko tertuliatan haien iritzia ematen dutenek harridura adierazi dute: "ministrari gazte eta esperientziarik gabeko honek ez du atzera egin, areago, bere ekintza defendatu du, ia defendagaitza denean. Gainera matxismoaren ondorioa dela esaten du, hori aurpegia...". Argi dago *miembra* esateak ez duela gizon eta emakumeen arteko aukera ezberdintasuna konponduko, baina hizkuntza erabiltzen duen gizartearen isla da eta izendatzen ez dena

ez da existitzen. Mendeetan zehar ez da *miembrarik* egon, noski, emakumeak ez baitzuen arlo publikoan ordezkapenik. Zenbait intelektualek agertutako portaera, joera patriarkalaren nagusi-goaren ondorioa da. Hizkuntza eta hiztegia ez dira mugjezinak, hizkuntzaren bidez ereduak transmititzen dira eta lenguaia ez da ekintza natural edo biologikoa, eskuratze kulturala baizik. Hortaz, borondatearen arabera aldakorra. Gai honen oinarria ez da *miembra* esan duen edo ez, ondo dagoen, edo hitz egokia den edo ez. Garrantzitsuena batzuen sexismoa eta honelakoak berdintasunaren bidean oztopoak jartzeko aprobetxatzen dituztenen jarrera da, *miembro* eta *miembra* asko ari baitira oraindik horretan.

1962

Eliz-Alde futbol zelaiko txapelketa

Hona hemen Urretxuko Eliz-Alde futbol zelaian antolatzen zen futbol txapelketan parte hartu zuen taldeetako bat. Zutik: Anjel Otaegi 'Txiki', Maximo Aldea, Jesus Mari Areitioaurtena, Anjel Idiakez eta Jesus Iturbe. Makurtuta: Jesus Mari Mendiara, Migel Aranzadi, Anton Iturbe eta Jose Mari Munduate. Talde honek 1961eko txapelketa irabazi zuen.





Iñaki Beitiaren omenezko mendi martxa posible egi-
ten duten laguntzaile eta parte hartzaileei omenaldi
xumea.

Josu Perez







Joxe Mari Iparragirre

BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA

Santa Barbara bidea z/g. - Telefonoa/fax: 943 72 14 03 - 943 72 14 13
jmiparragirre@edunet.es - www.iparragirre.net - 20700 - URRETXU (Gipuzkoa)

ERIZAIN LAGUNTZAILEA

Erdi mailako heziketa zikloa
Osasun familia
A eta D ereduak

Aurrematrikula:

Ekainaren 2tik 13ra (biak barne).

Matrikula egiteko epea:

Ekainaren 30etik uztailaren 4ra (biak barne).

Lanbide aukerak: Ospitaleko erizain laguntzailea, zaharren egoitzetan, eguneko zentruetan, lehen artapenetako laguntzailea, kontsulta pribatuetan, hortz-kliniketan laguntzailea, gaixoen zaintza.



asirauto

Mugitegi industrialdea, URRETXU

Tel. eta fax: 943 72 59 22

Mugikorra: 659 67 89 79



Audi Allroad TDI - 180CV - 2002



Nissan X-Trail D - 2002



Opel Corsa 1.0 - 2005eko abendukoa



Peugeot 307 SW HDI - 110CV - 2002



Volkswagen Caravelle - 9 eserleku - 2007



Volkswagen Passat TDI - 130CV - 2003



Francisco Umbral

Mortal y rosa

Umbral maisuak, goian bego, bere semearen heriotza kontatzen du bertan, ume hori nola agortzen doan poliki-poliki. Semearen heriotzaren aurrean bizitzari buruzko gogoe-ta sakona egiten du, bere baitako zoko guztiak arakatuz. Ez da kolpetik hasi eta bukatzeko liburua, hobeto gozatzen da pusketa txikiak irakurritz. Lerro gutxi batzuk aski dira zaporea hartzeko, maisutasunaz jabetzeko, telebistan agertzen zuen itxura haren atze-

an dagoen sentiberatasun erraldoia antzemateko. Umbral. Idazle-idazlea; ohi denez, hil eta gero hobea. Esperientzia garrantz hori izan zuen, liburu honetan jasota utzi zuen eta ez zuen gehiago seme-alabarik izan. Ikus-ikasi beharreko guztiak ikus-ikasi zituen bertan. Zumarragako liburutegi berrian hartu dut liburua, eta atzera bertan entregatu. Hantxe dago.

Iñaki Bastarrika


Xabier Montoia

Ni ez naiz Xabier Montoia

Euskal Herrian eta euskaraz argitaratu den lanik birbilenetakoa da Xabier Montoiaren *Ni ez naiz Xabier Montoia* (Metak, 2002). Rockarekin aspertuta, *Lagunak*, *adiskideak... eta beste hainbat etsai* (Esan Ozenki, 1999) diskarekin urraturiko bidean jarraitu zuen. Bidaide gisa Berako lagun eta musikari apartak aukeratu zituen: Joseba Irazoki (gitarra), Fernan Irazoki (bateria) eta Iñigo Telletxea (baxua). Behar-beharrezkoarekin

osatu zituen kantak: baxu-baterian oinarrituta, alegia. Nabardura, zarata, iradokitzaile bezain sentsualak gehitu zizkien. Musika beltzaren oihartzunak ditu diskak. Pop esperimentalarenak ere bai. Eta teknologia berriei ere tokia egin zien. Diska minimalista da. Ixilune ederrak dituena. Dantzagarria ere bai. Eta hitzak... eszeptikoak, errealistak eta ironikoak: Montoiarenak.

Igor Susaeta



Buster Keaton

Txatarrerria Keaton

Arturo Blasco, Bingen Mendizabal, Nika Bitchiashvili eta Alex Ruiz de Azuak osatzen dute Txatarrerria Keaton izeneko laukotea. Keatonen 1920ko hamarkadan eginiko filmeei musika ipintzen diete zuzenean, filma bizi araziz. Gitarra, baxua, biolina, marakak, arpa judua, armonika eta beste hainbat instrumentu jotzen dituzte. Emanaldiko musika moldatu egiten dute, ez bakarrik pantailan gertatzen dena, baita jendearen erantzun-

nera ere. Euren hitzetan, talde bezala egin-dako lehen entseguetako soinua *txatarrero* xamarra zen. Horregatik erabaki zuten taldeari Txatarrerria Keaton izena jartzea. Benetan merezi du laukote honek Buster Keatonen filmekin egin dezakeena ikustea. Ziur joaten den orok gozatuko duela emanaldi berezi horrekin. Ekainaren 30ean izango da, 22.00etan, Zelai Arizti aretoan.

ButaK 21 zineklub taldea

Anjel Lopez: Gabiriatik Amerikara artzain

Garai batean euskaldun asko joan zen Estatu Batuetara artzain. Horietako bat Anjel Lopez gabiriarra da. Bost urte eman zituen bertan, 1964tik 1969ra, eta makina bat abentura bizi izan zituen. Bihotza Euskal Herrian zuen eta itzuli egin zen. Etorri berritan Urretxun bizi izan zen eta egun Zumarragan bizi da.



Noiz eta nolatan joan zinen Estatu Batuetara?

29 urterekin joan nintzen. Ordura arte baserrian lan egin nuen. Aita 1949an hil zen, 43 urterekin, nik 13 urte bete berri-berri nituela. Poliki-poliki anaia-arrebek etxetik alde egin zuten: batzuk Orbegozora lanera, beste bat Venezuelara... Amak, 60 urte zituen garaian, baserriko lanetan ez zidala gehiago lagunduko esan zidan. Zer egingo nuen, bada? Alde! Zer dago baserrian? Etxe zahar bat besterik ez genuen eta belarrak-eta bizkarrean eraman behar izaten nituen ganbarara. Auzoko batzuek Azkoitiko euren iloba Estatu Batuetan zegoela esan zidaten eta haien bitartez joan nintzen.

Ezkondutxo gabe zeuden, beraz...

Orain ere bai! Estatu Batuetan beldurtu nintzen ni emakume kontuarekin... Gure nagusia banandu egin zen eta andreak etxea eta autoa kendu zizkion. Hasi ezak bizimodu berria! Banantzea gogorra da, ez diru kontuagatik bakarrik.

Zer espero zenuen Amerikara joan zinenean?

Hemendik alde egitea eta zerbait egitea besterik ez.

Zer aurkitu zenuen bertan?

Goian zerua eta behean lurra. Nueva Yorkera heldu nintzen nafar batekin batera eta gure bila ez zen inor etorri. Aireportuan ikusi nuen lehenengoz eskailera automatikoa. Garai hartan igotzeko bakarrik jartzen ziren halakoak. Nire gauzak utzi eta berehala probatu nuen. Nueva Yorketik Los Angelesera joan ginen. Han ere ez zegoen inor gure zain. Iparraldeko familia baten ostatura joan behar ginen eta azkenean lortu genuen.

Hara heldu, bazkaldu eta musean jokatu behar zela. Galdu egin genuen eta nire bikotekideak dirurik ez zuenez nik ordaindu behar izan nuen!

Non hasi zinen lanean?

Handik egun gutxira Nevadara eraman ninduten. 2.000 ardiren kargu jarri zidaten. Txoriak kantuan, besterik ez zegoen han. Amuarrain asko zeuden eta horiek harra-patzen ematen nuen eguna. Gero mendi-

“Ez zen toki arriskutsua, baina kriskitin-suge asko zeuden. Hartzak ere bazeuden, baina ez nituen sekula ikusi”

zerrara joan nintzen, Pou anaiek duela gutxi igo duten Kapitain Handiaren ondora. Paraje hura ezezaguna zen niretzat eta beldur ederra pasatu nuen. Txakurra eta asto zahar bat besterik ez nituen lagun. Pare bat hilabete ematen nituen han goian. Ez zen toki arriskutsua, baina kriskitin-suge asko zeuden. Hartzak ere bazeuden, baina ez nituen sekula ikusi. Puma, ordea, ikusi nuen.

Eskopetarekin joaten al zinen?

Hasieran ez. Txabolarik ere ez zegoen. Kanpin-dendan lo egiten nuen. Astean bi aldiz edo janaria ekartzen ziguten eta etortzen zenak konpainia apur bat egiten zidan. 3.000 metro ingurura geunden eta abuztua erdialdean elurrak zuritu egin zuen behin. Maiatzaren azkenalditik urrira bitartean izaten ginen han.

Arrantzan aritzeaz gain, zer gehiago egiten zenuen?

Ehizean aritzen nintzen. Orein asko zegoen. Kumeak botatzen nituen. Guardek etxea zuten eta hamabi bat egoten ziren. Behin bat etorri zitzaidan. Hura bere hizkeran eta ni nirean... Surik ez egiteko esan zidan, gauzez ikusi zuela largabistekin. Ehizean ere ezin zen egin eta behin salatu egin ninduten. Autoa gelditu zuten eta erriflea kargatuta nuela ikusi zuten. Amerikan nengoela eta han erriflea ezin zela kargatuta eraman esan zidaten. Arrazoa zutela erantzun nien, Espainian kargadorea eramaterik ere ez zegoela.

Bakardadea, arriskua... ondo kobratuko zenuten behintzat.

Batere ez. Hemendik atera nintzenean hango soldata 15.000 pezetakoa zen eta hemengoa 4.000koa. Itzuli nintzenerako hemen denek autoa zuten. Gauza bat genuen ona, ez genuela gasturik.

Oporrik ba al zenuten?

Kontratuan bai, baina... Nagusi bakarra izan nuen. Zugarramurdikoa zen, nire moduko astapotroa. Ni baino gazteagoa zen. Bera ere artzain joan zen eta diru pixka bat egin zuenean ardiak erosi zituen. Ni joan nintzenean 3.000 ardi inguru zituen eta itzuli nintzenerako 10.000 bat. Denak lapurtutakoak! Nola ba bestela? Lursailak ez ziren bereak, baina nagusia New Yorken bizi zen igual... Dena den, lapurra lapurren beldur beti!

Ondo moldatzen al zinen berarekin?

Bai. Batzuetan ardi zaharren bat kentzen nion, baina hainbeste zeuden... Han zakurrek jaten zutena hemengo familiek ez dute jaten oraindik. Jatekoa soberan zegoen.



1967: Ezkerretik hirugarrena, mendian zegoela arrantzatutako amuarrainekin.



1967: Puma bat eusten.

Libre zenituzten egunetan zer egiten zenuten?

Euskal festetan izandakoa naiz. Telebistan azaldu izan diren Renoko eta Nevadako euskaldun asko ezagutzen ditut.

Ingelesezt hitz egiten ikasi al zenuen?

Ikaragarri... harriekin! Dena den, tratante lanetan ere aritu nintzen hilabete batez-edo. Ardi zaharrak apartatu eta saldu egiten nituen. Nagusiari esandako salneurrian baino garestiago saltzen nituen eta aldea niretzat hartzen nuen. Bestalde, bost saltzen banituen, nagusiari lau saldu nituela esaten nion. Inork ez zituen kontatzen! Nagusia gustura nuen gainera.

Zenbat denbora egon zinen Estatu Batuetan?

Bost urte. Ordurako paperak nituen eta ondo nengoen: nahi adina janari eta gasolina nuen. Nagusiak ez dio hori edonori ematen, e! Izan ere, etxeakoontzako gaso-

lina tankea genuen. Kamioi handiak ere gasolinarekin ibiltzen ziren han.

*“Gu hemengoak gara, e!
Nagusiak bizitza han
utziko nuela esaten zidan
eta oso erratuta zegoela
erantzuten nion”*

Makina bat anekdota izango dituzu.

Heldu eta gutxira nagusiak utzitako astoak ihes egin zidan. Topatu genuenerako basapiztia egina zegoen. Beste bat utzi zidan eta behin 250 kilo kargatu nizkiola gogoratzen dut. Bigarrengo honek ere ihes egin zuen. Topatu nuenan makilarekin buruan eman nion eta seko geratu zen. *Mekaguen! Orain egin*

diagu ona! pentsatu nuen. Errezatzen ere hasi nintzela uste dut. 10 minutura-edo altxatu egin zen. Etxera eraman nahi eta ez zuela nahi... Gainean jarri nintzen eta bota egin ninduen. *Mekaguen!* Berritro sekulako pasada eman nion. Halako batean etxera eramatea lortu nuen eta nagusiari Ameriketara ez nintzela astoekin berriketan ibiltzera joan esan nion.

Zergatik itzuli nintzen?

Anaia Venezuelan nuen eta 17 urte ziren ikusten ez nuela, ama ere Venezuelara joan zen eta bost urte pasa nituen bera ikusi gabe, oporrik ez nuen... Bestalde, Amerikan gelditu zirenak ere... Gu hemengoak gara, e! Nagusiak bizitza han utziko nuela esaten zidan eta oso erratuta zegoela erantzuten nion. Mendira kanpin-dendan joaten nintzen eta ni joan nintzen urtean karabana erosi zuen. Bota nion... Bestalde, bera ere Euskal Herrian jaiotakoa zela eta egu-

1967: Beste hiru euskaldunekin, menditik jaitsi zirela ospatzen.



Goizero lagunekin elkartzen da kafetegian.



nen batean bere herrira itzultzeko esan nion, bihotzak hori eskatzen ziola eta. Negarrez hasi zen.

Han gelditu ziren euskaldunek ere bihotza hemen dute beraz.

Ez izan dudarik. Hona etortzen diren kolonbiarrak-eta antzera daude. Inork ez du bere herria bere borondatez uzten. Askok hemen neskaren bat haurdun utzi zutelako edo soldadutza egin nahi ez zutelako joan ziren. Familia, lagunak... hemen utzi eta gutxi aberastu dira han. Baserritar asko apenas jaisten ziren herri-
ra eta bat-batean soldadutza egitera Ceutara joan behar zutelako esaten zieten. Ez da harrizkoa ihes egitea.

Itzuli al zara Estatu Batuetara?

Ez. Ez dut kartzelara joan nahi.

Kartzelara? Zer egin zenuen ba?

Ardi beltza... Ez nuen behar bezainbeste zerga ordaindu. Handik atera nintzenez itzultzeko asmorik nuen galdetu zidaten aireportu guztietan eta baietz erantzun nien. Serio begiratzen zidaten... Kontraturik gabeko etorkinak oso gaizki ikusita zeuden, baina zorionez nik pape-

rak nituen. Nire paperak begiratzera ere etorri ziren pare bat aldiz.

Zergarik ordaindu ez bazenuen, diru pixka bat ekarriko zenuen.

Etxea erosteko adina besterik ez.

“Askok hemen neskaren bat haurdun utzi zutelako edo soldadutza egin nahi ez zutelako joan ziren”

Hasieran Ipeñarrieta kalean bizi izan nintzen eta gero Zumarragako Urola tabernaren gainean.

1969an itzuli zinen. Oraindik gaztea zinen. Zer egin duzu ordutik aurrera?

Hasteko, parranda ederrak egin nituen. Gustura hartu nituen sagardotegiak eta bertako giroa. Estatu Batuetan alkoholemia proba zegoen ni joan nintzenerako eta zuzen ibili beharra zegoen... Dena

den, euskaldunak oso ondo ikusita geunden. Euskaldunak ginela esan eta berehala lanerako hartzen gintuzten.

Sagardotegietara joateaz gain, lana ere egingo zenuen.

Lehenengo urtebetean ez nuen inon lan egin. Gero nire anaiarekin eta lagun batekin autoentzako tailerra ireki nuen Santa Lutziko gasolindegian ondoan. Guk alde egin eta gutxira hango negozio guztiek porrot egin zuten: han zeuden bi tailerrek, gasolindegia, bi tabernak... Guk lan asko egiten genuen, baina lan txarra zen: bati autoa garbitu, besteari olio aldatu... Jubilatuta bitartean bertan lan egin nuen.

Noiz erretiratu zinen?

Duela 13 urte.

Zer egin duzu geroztik?

Lagunei gezur batzuk esan eta... Ur-Gain elkartera hamarretakoa egitera joaten gara, kafetegian ere elkartzen gara, tarteka lagunok bazkariak eta afariak egiten ditugu, Gabiriako baserriko baratzerara joaten naiz, ehizean egitera, garai batean perretxiko bila ere bai... Hemendik ez dugu ezer eramango eta!

Elkarrizketa hau urtarrileko alean hasitako Urola Garaia buruzko erreportajearen jarraipena da.

Xotero Plazaola: “Mankomunitate mentalitatea galdu egin da”

Urtarrilean Urola Garaia izanari eta etorkizunari buruzko hausnarketa hasi genuen. Ordutik Uggasa, Ugisa, UGLE, Mankomunitate eta udaletako ordezkariak euren iritzia azaldu dute. Azkeneko protagonista Xotero Plazaola Legazpiko alkatea da. Honenbestez analisia amaitu da eta ondorio nagusia etorkizunak oparoa izan daitekeela baina horretarako elkarlana sakondu behar dela da. Ea hala den!



Xotero Plazaola, Legazpiko udaletxeko bere bulegoan.

Nola ikusten duzu Urola Garaia Mankomunitatea?

Mankomunitateak hainbat gauza lortu zituen, UGLE eta suhiltzaile parkea esaterako, baina pixkanaka mankomunitate mentalitatea galdu egin dela uste dut. Dagoeneko erakundeak ez du edukirik. Oso egiteko gutxi ditu. Plan estrategikoa landu behar dugu eta nire ustez lau urte hauek oso garrantzitsuak izango dira. Udalok Mankomunitatea indartzeko prest gaudela iruditzen zait, nahiz eta azkenaldian bakoitzak bere aldetik lan egiteko joera izan dugun. Bestiak indartsuak direla eta gu atzean gelditu garela konturatu gara. Guk ere, Goierri edo Debagoiena bezala, indartsu agertu nahi dugu.

Aurreko urteetan herri bakoitza bere aldetik joan dela uste duzu, beraz.

Hori gertatu dela uste dut. Ni ez naiz

udaletxean egon, baina barruan egon direnek ere hori esaten dute. Mankomunitatea edukirik gabe gelditu da poliki-poliki.

Ingurukoekin nahikoa elkarlan bada-goela uste al duzu?

Goierri indartsu ageri da eta horretarako zer pauso eman dituen begiratu behar-ko genuke. Beraingandik ikasi beharra dugu. Elkarlana etorriko da. Orain ez du zentzurik Goierrikoengana joateak, ez baitugu zer eskaini. Lehenengo geure burua indartu beharra dugu. Indartzen garenean elkarlan pausoak emango dira. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak Mankomunitate indart-suak nahi dituzte eta Urola Garaia txi-
kia da. Hala zailagoa da laguntzak eta aukerak lortzea. Horrek indartu eta ondoren elkarlana bilatu behar dugula esan nahi du.

Ba al du zentzurik Goierri eta Urola Garaia arteko banaketak?

Gu Goierri gara, baina bere garaian Urola Garaia Mankomunitatea sortu zen. Nola jokatu ikusi behar dugu.

Legazpik nahi bezainbesteko garrantzia al du Urola Garaia Mankomunitatean? Legazpik ez al du Urretxu eta Zumarragak baino gehiago begiratu Goierri?

Zerain, Segura, Zegama... ondoan ditugu eta normala da haiei begiratzea. Mankomunitatea Urretxu eta Zumarragarekin osatu genuen eta tira... Normala da arazoak sortzea. Aipatutako bi herri horiek hirigune bakarra osatzen dute eta biztanle gehiago dituzte. Gauzak biztanle gehien duen tokian kokatzera jotzen da beti eta Legazpi tokiz kanpo gelditu da askotan. Dena

den, orain Uggasa Legazpira etorri da. Legazpi apur bat aparte dago, baina ez dago urrun dagoela esaterik. Nire ustez ez da ezer gertatzen Uggasaren egoitza Legazpira ekartzeagatik. Zerbitzua orain arte bezain ona izango da. Orain arte gu joan behar izan dugu hara eta

“Gauzak biztanle gehien dauden tokian kokatzera jotzen da beti eta Legazpi tokiz kanpo gelditu da askotan”

orain beraiek etorri behar dira hona. Hori da mankomunitate mentalitatea eta ez Udal bakoitza beretzat gauzak lortzen saiatzea.

Nola ikusten duzu Urola Garaia mankomunitatearen etorkizuna?

Plan estrategikoak markatu behar du norabidea eta aipatutako mankomunitate mentalitatea beharrezkoa dela garbi izan behar dugu. Bakoitzak bere aldetik ezin du ezer egin. Mankomunitatea indartzen badugu, azpiegitura onak lortuko ditugu. Une honetan Legazpik industria zorua du, baina Urretxu eta Zumarragako biztanleei bertan lan egiteko aukera ematen diegu. Urretxuk ez du industriarako lurrik, baina Legazpira etor daitezkeen langile prestatuak eta enpresak ditu. Bakoitzak bere alde egitea normala da, baina gauza batzuetan elkarlana ezinbestekoa da.

Legazpi aldera ezik, Ezkio-ltsaso

aldera ere zabalduko da ekonomia jarduera.

Hala da. Bertatik Abiadura Handiko Trena pasako da eta industriarako lurra ere badu. Hori guztia bideratzea Mankomunitatea osatzen dugun guztion ardura da. Gauzak ondo egitea zaindu behar dugu.

Herritarrek eta enpresariak ere mankomunitate pentsaera dutela uste al duzu?

Jendea askoz ere gehiago konprometitu behar da. Denok lan egin behar dugu inguru honetan aukerak sortzeko eta bizi-kalitatea hobetzeko. Nire ustez Goierriren arrakastaren arrazoietakoa bat hori da: enpresak oso ondo kokatuta daude. Nire ustez hemengo enpresek apur bat gehiago lan egin behar dute Mankomunitatean.

Urretxuk eta Zumarragak ez zuten Lenburren barruan sartu nahi izan. Zer iruditzen zaizu?

Nire ustez gai horri eutsi behar diogu berriro. Zer nahi dugun begiratu behar dugu. Uggasak ere turismo alorrean lan egin izan du eta Legazpin Lenbur dugu. Plan estrategikoak hori guztia zehaztu behar du. Nire ustez Lenbur Mankomunitate barruan kokatzea komeni da.


Zer iruditzen zaizu mankomunitate mailako erakundeen gainontzeko lana?

UGLE eta Uggasa gauzak egiten ari dira. Bete dute egin beharrek. Hobetu egin behar dutela? Beharbada zer edo zer gehiago egin behar da, baina garrantzitsuena tresna horiek hor edukitzea da. Beharbada orain arte ez dute testuingururik egokiena izan lan egiteko.

Hiru urretxuar NBA saskibaloi txapelketako finalean

Los Angeles Lakers eta Boston Celtics taldeek 80ko hamarkadan jokatu zituzten finalak Estatu Batuetako NBA saskibaloi ligak ezagutu dituen gogoangarrienak dira. Iñaki Albisua eta Julio eta Sergio Gonzalez de Galdeano anaiak partida haiekin zaletu ziren saskibaloira eta egunen batean bi taldeak berriro ere final handian elkartzen baziren Estatu Batuetara joango zirela hitz eman zuten. 20 urte itxaron behar izan dute euren ametsa betetzeko. Ekainaren 7an Los Angelesera joan ziren eta 12rako bueltan ziren, finaleko hirugarren partida ikusi ondoren.

Sergio eta Julio Gonzalez de Galdeano anaiak, Iñaki Albisuarekin, Los Angeles Lakers taldearen Staples Center pabiloian.



Lakers eta Celtics taldeek denboraldi bikaina osatu dute eta zaletuek aspaldi esan zuten finalean topo egin zezaketela. Hiru urretxuarrak jakinaren gainean zeuden eta finalerdiak heldu zirenean bi taldeak finalerako sailkatzen baziren euren promesa betetzea erabaki zuten. Finalerdietako azken partida bukatu bezain pronto, Interneten sartu ziren sarrerak erosteko asmoz. “Ordurako Bostonen jokatu ziren lehen bi partidetarako sarrerak agortuta zeuden. Los Angelesera joan behar izan dugu, nahiz eta hemendik askoz ere urrutiago dagoen. Hotela eta hegaldia lortzeko, berriz, ez dugu arazorik izan. Zortea izan dugu, sarrera Estatu Batuetako txartelekin bakarrik eros daitekeela esan baitigute. Guk, ordea, ez dugu arazorik izan hemengoarekin erosteko”, aipatu du Iñaki Albisuak.

Kaliforniako hiririk handiena asko gustatu zaie, nahiz eta 60 ordu bakarrik izan dituzten bisitatzeko. “Hiri oso handia denez, ezin izan dugu dena ikusi. Hondartzak eta Hollywood bisitatu ditugu, hiria bizikletan zeharkatu dugu... Denetik egin dugu. Horren denbora laburrean ezin da gehiago egin. Mutil beltz batzuk ikusi ditugu kalean saskibaloian jokatzeko eta eurekin jokatzeko utzi digute. Oso ondo pasatu dugu”, azaldu du urretxuarrak.

Saskibaloiarekin lehen hartu-emanan izan ostean, aspalditik espero zuten unean heldu zen: Los Angeles Lakers taldearen Staples Center pabiloira sartzeko ordua. “Sartu aurretik kanpoaldean antolatutako txapelketa batean parte hartu genuen. Galdeano anaiak Lakers taldearen elastikoarekin zihoazen eta ni

Celtics taldearenarekin. *Boston Herald* egunkariko argazkilaria gerturatu zitzaigun eta argazkiak atera zizkigun. Pabiloi barruan, berriz, *Digital+* telebista kateko aurkezleekin izan ginen”.

Hiru urretxuarren bidaiak komunikabideen arreta piztu du. Euren, aldiz, pabiloiaren tamainak. “Ikaragarria da. 20.000 lagunentzako tokia izateaz gain, telebistentzako bi solairu ditu. Gainera, dirudunek toki asko hartzen dute. Hemengo pabiloiak baino askoz ere handiagoa da. Dena den, Los Angelesen behintzat, ez da hemengo

Kalean saskibaloian jokatzeko aukera izan dute eta ‘Boston Herald’ egunkarikoek argazkiak atera dizkiete


giroa sortzen. Ikuskizuna ikustera joaten dira batik bat. Baskoniako zaleak askoz ere beroagoak dira”, dio Urretxuko zaletuak.

Gonzalez de Galdeano anaiak Lakers zaleak dira eta Albisua, berriz, Celtics zalea. Hirugarren partida Los Angelesen jokatu zenez, urretxuarra zen Bostonekoek pabiloian izan zuten jarraitzaile ia bakarra. “20.000 ikusle inguru ginen eta horietatik 50 bat bakarrik Celtics zaleak. Aurkariez inguratuta egon nintzen, baina berdin du. Okerrena galdu egin genuela izan zen”, aipatu du. Dena den, Galdeanotarrei

adarra jotzeko aukera du. Izan ere, Bostongo taldeak irabazi du txapelketa. Gonzalez de Galdeano anaiak eta Albisua Baskonia taldearen jarraitzaileak ere badira eta iaz Atenasera joan ziren Gasteizko taldea ikustera. Aurtengo bidaiak hura gainditu du. “Gaindiezina dela uste dut. Errepikatuko genuke, zalantzarik gabe, baina nahia eta ahala ez dira bat. Halakoak ezin dira egunero egin. Aukeran, egun gehiagotarako joango ginateke”, esan du Albisua urretxuarrak.

Jendeak Estatu Batuetara saskibaloia partida bat ikusteko bakarrik joatea ez ulertzea normala iruditzen zaio. “Gainontzeko ikusleei harritzekoa iruditzen zitzaien partida bat ikusteko joan izana, baina saskibaloia zaletuak direnez ondo iruditzen zaiela esan digute. Apur bat zoratuta gaude, baina haurtzaroko bizipenek indar handia dutela kontuan izan behar da. Gainera, garai hartan NBA gainontzeko ligen oso gainetik zegoen eta historian izan diren bi talde onenak ikustea tokatu zitzaigun. Amets bat egia bihurtzerako joan gara, saskibaloia partida ikustera baino. Guk geuk ere egitera gindoazena gehiegizkoa zela pentsatu genuen, baina egin izan ez bagenu, bizitza osoan damutuko ginatekeen”.

Ez dira euskaldun asko izango NBAko finala ikusteko aukera izan dutenak. Dena den, urretxuarrak beste batekin topo egin zuten: irundarra, hain zuzen ere. “Irteeran ikurriña zeraman gazte batek argazki bat ateratzeko eskatu zigun. Irungoa da, baina ez da Estatu Batuetara espresuki saskibaloia partida ikustera joan”, amaitu du.



Alex Areizaga

Informatika

'Windows Vista'

Windows Vista geroz eta gehiago ari da zabaltzen jendearen artean. Sistema operatibo berri honek, tamalez, arazo ugari ematen ditu. Gomendio onena sistema operatiboz aldatzea edo berri bat gehitzea litzateke (*XP* edo *Linux* jartzea), baina honek ere arazo batzuk eman ditzake. Hortaz, *Vista* erabiltzekotan, jakin karpeten egituraketa berria dela eta kasu batzuetan baliteke guk behar dugun karpeta aurkitzeko arazoak izatea. Horrez gain, *acceso denegado* errorea eman ohi du sarritan, eta karpeta horietara sartzen ez du uzten. Horrela ba, *Documents and settings* carpeta *Usuarios* izenarekin aurkituko dugu; *Mis Documentos*-en ordez, *Documents* carpeta izango dugu eta *Mi Música*, *Mis Imágenes*... karpetak ez daude horren barnean, horrekin batera baizik.



Miren Arrieta

Osasuna

Larrialdiak

la denok ezagutzen dugu ospitale bateko larrialdi zerbitzua, baina ez dakit denok erabilera egokia ematen diogun. Gertutasunak eta 24 orduko zerbitzua izateak ez du esan nahi edozein arrazoi dela ere joan gaitezkeenik, honek zerbitzuko kolapsoa ekarri baitezake. Jakina da inguruko anbulatorio gehienek ere 24 orduko zerbitzua dutela (PAC: Punto de Atención Continuada), Beasain, Zumarraga, Legazpi eta Azpeitian hain zuzen ere, bertan mediku eta erizaina izaten dituzte. Lehenengo gaixoei anbulatorioa joan behar dute, ez bada larritasun handiko zerbitzu behintzat, eta behin hortik pasatakoan medikuak erabakiko du zer den egokiena. Gaixoei beren burua profesionalen eskuetan jartzen dutenean eskubide batzuk dituzte, baina ez da inoiz ahaztu behar eginbeharrak ere badituztela, eta gure osasun sistema mantentzea nahi badugu, hobe genuke ditugun errekurtoak zainduko bagenu, uste baino lehen agor baitaitezke.

Horacio: deserria

Ganbara batean zeudela Horaciok erbesteaz hitz egin zien. Ozeanoko jainkoa bezain handi, bere tridentea mahai gaine-an utzita, bakoitza belaun batean eseri zuen. Poseidón bera. -Vengan acá, mis perlas.

Deserria norberak aukeratzen duenean ez da hain deserri, hasi zen. Videlaren diktaturaren garaian utzi behar izan zuen berak Argentina.

Ordutik bere barruek ez daukate non eutsi, zerbait hautsi zitzaion. Izebaren etxea arakatu eta hankaz gora utzi zuten, segika ibili zitzaizkion eta harrapatuz gero zer egingo zioten jakin zezan lorratz bat baino gehiago utzi zioten bidean. Bere liburutegia erre zuten. Orduan bai, Marcela eskutik hartu eta Buenos Aireseko aireportura beltzez jantzita iritsi zen, txartelak eta maleta bana eskuetan.

Horacio sarritan bueltatu da harrezkero. Marcela gabe egin du bueltako bidaia, Marcelak ezin izan du urrats hori eman, pentsatze soilak malkoak bere begien atarietan ipini ditu eta bietako inork ez du berriz ere urtegia zabaldu nahi izan. Marcela ez da bueltatu Argentinara.

Horaciok inoiz ez du aurkitu, ordea, utzi zuen herria. Kantoiak, eraikinak, parkeak eta aurpegi asko ere hor daude, ez denak. Bueltatu den bakoitzean apurtutako ispiluaren atalak elkartzen saiatu da, baina ezin izan du ispilua osatu. Eskandinabiako hotz eta ilunean hobeto nago, elurraren zuriak nere minak urruti daudela amesten uzten dit.

Beste mota batzutatako erbesteak ere badaudela dio: norberak aukeratzen dituenak. Egoera errazagoa dirudi. Horaciok errazagoa dela uste du. Bi metroko erbestea edo hoge mila kilometrokoa, doana edo datorrena, nahita edo nahitaezkoa. Bidean Kavafisen hiria norbera, edonora, beti, bere buruarekin doala gogora ekartzeko.

Horacioren bizkarrak kurba bat marraztu du eta perlak belau-netatik jaitsi ditu, Zahartu egin da, txikitu bat-batean, bere eskuak dar-dar hasi dira dantzaz. Hitzak pisutsuak dira orain, poliki hitz egiten du, hitz bakoitzak zama bat ezkutatu-ko balu bezala:

-Poseidón era una impostura, soy chiquitico mis perlas.

El exilio involuntario es forzado pero, en realidad, el exiliado siempre se preguntará si realmente no le quedó otro remedio.

Horacio elefantea balitz tronpamakur legoke, ttiki elefanteen artean. Perlen begi borobilak handitu egin dira. Bizkarra zuzentzen saiatzen da Horacio, perlengatik izan dadila behintzat. Gezurretazko jainkoak oraindik kontatzeko gehiago baduela dio eta parean lurlean eserita dituen perlei zuzenean begiratzen die esku batekin bestearen dardarari helduz:

-Fíjense en el poeta Juan Gelman, él no se dice exiliado, se dice trastornado. Él volvió tras la dictadura: “la vuelta a Argentina fue extraña. Un día entré en un bar de comida rápida. Delante de mí había un señor con aspecto de policía muy notable. Me puse a pensar: ¿no será ése el hijo de puta que mató a mi hijo? Me di cuenta de que en Argentina me quedaban pocas alternativas de vida. O vivir amargado, o agarrar la *metra* y matar a algunos, o acomodarme a la situación. Conclusión: me fui”.

Gelman bere sustraiak Argentinatik Mexikora eramaten saiatu zen eta neurri batean lortu duela uste du Horaciok, akaso Mexikon sustrai berriak sortu dituelako, ez da gutxi. Beste batzuek bizitza guztia ematen dugu horretan inoiz lortu gabe. Eta orain, perla ederrak, zerrendako azken deserriak: erbeste laburrak, kilometrorik gabekoak. Guztiok, barruan, batzuetan, ihes egiteko dugun gogo horretaz ari naiz. Ezaguna duzue? Erbestealdi horiek gehienetan ez dira mingarriak, baina minak eragindakoak izaten dira askotan. Deserri laburrak pluralak dira. Gogo horri jarraiki ihesian joan direnak eta gero bueltatzeko modurik aurkitu ez dutenak badira. Badira denbora pasatu ahala bidea ahaztu nahi izan dutenak edo bidea, jada, gogoratzen ez dutenak. Deserri laburrak betirako ihesaldiak bilakatu daitezke, baina ez larritu perlak, azken erbeste hauen artean goxoak direnak ere badira, ez dizuet, ordea, nireak zeintzuk diren esango.

Perlak isilik daude, pentsatzen.

Miriam Luki

Estitxu Zaldua

Estitxu Zalduak ikastolan, lizeoan eta Legazpiko institutuan ikasi zuen. Ondoren Donostiara joan zen antzerkia ikastera eta Irunera Haur Hezkuntzako Teknikari ikasketak egitera. Duela 9 urte ikastolako hartzaindegian hasi zen lanean. Umetatik antzeztea gustuko du. Madrilerara joatea gehiegizkoa iruditu zitzaion eta antzerki mundua zaletasun bezala hartzea erabaki zuen. 15 urte daramatza Karmakros taldean eta atsedean hartzeko asmoa du. Dantza eta makillaje ikastaroetan parte hartzen ari da eta datorren ikasturtean irakasle-ikasketak hasiko ditu.

Zer izan nahi zenuen umetan?

Egun naizena: andereñoa izan nahi nuen eta aktore izatea ere buruan nuen.

Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Antzerkia ikustea, zinemara joatea eta lagunekin gozatzea.

Bizitzeko toki bat?

Zumarraga.

Gustuko aktorea?

Alberto San Juan.

Eta emakumezkoen artean?

Meryl Streep eta Susan Sarandon.

Eta herrikoen artean?

Karmakros taldean antzezle oso onak daude. Gorka Solana esaterako, nahiz eta Legazpikoa den. Herrikoen artean, Joseba Apaolaza.

Gustuko antzezlanak?

Animalario taldeak egin dituen gehienak gustatu zaizkit.

Zer lan egingo zenuke gustura?

Zinea gustura egingo nuke, baina nire bizitzak beste norabide bat hartu du.

Non antzeztu behar da gehiago, eguneroko bizitzan ala eskenatokian?

Eguneroko bizitzan ez naiz batere *teatreroa*.

Ileheriak ala beltzaranak?

Biak.

Egindako azken oparia?

Duela gutxi pijama bat oparitu dut.



Eta jasotakoa?

Bikini bat.

Data bat?

Uztailaren 30a, azken lan eguna.

Neska eta mutil izen bana?

Nahia eta Luken.

Zein egunkari irakurtzen duzu?

Normalean, Diario Vasco.

Gustuko telebista saioa?

El conquistador del fin del mundo gustura ikusi dut. *El hormiguero* ere ikusten dut.

Bereziki gorroto duzuna?

Futbola.

Pelikula bat?

Asko ditut gustuko. *Memorias de África*, adibidez.

Liburu bat?

El médico.

Soinu bat?

Errekarena.

Usain bat?

Nire amaren herrikoa: Burgosko Fresneda de la Sierra. Zahar usaina dago eta asko gustatzen zait. Beharbada hartzaroko oroitzapenak ekartzen dizkidalako izango da.

Janari bat?

Pasta.

Ura ala...

Garagardoa.

Are eta elkartasun handiagoa,


orain bai.

Babes-sarea inor baztertu gabe abiarazi. Gehien behar gaituztenak zaintzeko tresnak sortu.

Hori da efektogipuzkoa.

2007/2011 Kudeaketa Plana

efektogipuzkoa



GIPUZKOA

zurekin, aurrera >>

DEBAGOIENEAN LANBIDE HEZIKETA

7 OÑATIN

Erdi Maila

- Mekanizazioa
- Talde gidaritza natur ingurunean
- Mantentze-lan elektromekanikoa

7 ARETXABALETAN

Erdi Maila

- Soldadura eta galdaragintza
- Ibilgailuen elektromekanika
- Erizaintzako zaintza osagarriak
- Mekanizazioa

Goi Maila

- Galdaketa eta pulbimetalurgia bidezko produkzioa

ESKAINITZA
PAREGABEA!



MATRIKULAZIOA
Ekainaren 3 | tik Uztailaren 4ra

RM Zuazola - Larraña Institutoa

San Lorentzo, z/g • 20560 Oñati
Tel.: 943 78 21 50
E-posta: onatikobhi@goieskola.net
www.onati.net



Aretxabaleta GLHBI

Etxebarri auzoa, z/g • Aretxabaleta
Tel.: 943 79 79 00
E-posta: ia@iaretxabaleta.com
www.iaretxabaleta.com